



EUSKAL HERRIKO XII. EKONOMIAKO OLINPIADA

2021eko MARTXOAREN 26a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Azterketak 3 zati ditu: lehenik, 15 galderako test bat; bigarrenik, bi ariketa praktiko, bata batxilergoko bigarren mailako “Ekonomia eta Enpresen Antolaketa” atalekoa eta, bestea, batxilergoko lehen mailako “Ekonomia” atalekoa, eta, azkenik, testu bat iruzkinak egiteko.
- Lehen zatia **baztertzaileria** da eta 4 puntuko balioa du. **Erantzun okerrak ez dira zigortzen, eta gutxienez 8 erantzun zuzen izan behar dira.**
- Ariketak praktikoei eta iruzkinak egiteko testuak, bakoitzak 2 puntuko balioa du. Berezi baloratuko dira gaia ulertzeko gaitasuna eta erantzunen arrazonamendua.
- Azterketaren iraupena 2 ordukoa izango da.

Lehenengo atala: TEST GALDERAK

1. Eskaintzak enpresen portaera islatzen du. Hurrengo faktoreen artean, batek ez du eraginik eskaintako kopuruan, zein da?
 - a) Kontsumitzaileen errenta.
 - b) Ondasunaren prezioa.
 - c) Produkzio-faktoreen prezioa.
 - d) Produktibitatea.

2. Ondasun jakin baten eskaintza eta eskaera funtzioak honako hauek dira:

$$Q_o = 30 p - 100$$

$$Q_d = 200 - 30 p$$

Esan zer baieztapen den zuzena hauen artean:

- a) Prezioa eta oreka kantitatea 30 euro eta 50 unitate dira, hurrenez hurren.
 - b) Prezioa eta oreka kantitatea 5 euro eta 80 unitate dira, hurrenez hurren.
 - c) Gobernuak 6 euroko gutxieneko prezioa finkatzen badu, 60 unitateko gehiegizko eskaintza emango da.
 - d) Gobernuak 6 euroko gutxieneko prezioa finkatzen badu, 60 unitateko gehiegizko eskaera emango da.
3. Adierazi zer helburu EZ den sartzen giza baliabideen kudeaketan:
 - a) Enpresak behar dituen pertsonak aukeratzea eta prestatzea.
 - b) Langileei beharrezkoak diren bitartekoak ematea beren lana egin dezaten.
 - c) Enpresaren plantilla antolatzea eta planifikatzea, beharrezkoak diren lanpostuak diseinatzuz, haien funtzioak eta erantzukizunak definituz eta ordainketa sistemak analizatuz.
 - d) Bere langileen Curriculum Vitae prestatzea.
 4. Enpresa batek egiten dituen inbertsioak aukeratzeko eta baloratzeko unean, jarraian definitzen diren hainbat metodo eta irizpide daude. Adierazi zein den egiazkoa:
 - a) Pay back: metodo dinamiko bat da, diruaren balioa kontuan hartzen duena hura sortzen den unearen arabera.
 - b) BEG (Balio Eguneratu Garbia): metodo estatiko bat da, non diruaren balioa konstantea den denboran. Dena den, diruaren balioa zero unean eguneratzen da, eguneratze edo deskontu tasa aintzat hartuta ("i").
 - c) BET (Barne Errendimenduaren Tasa): metodo estatiko bat da, non diruaren balioa konstantea den denboran. Dena den, eguneratze edo deskontu tasa ("r") kalkulatzeko, BEG=0 kotsideratzen da.
 - e) BEG positiboa bada, inbertsioa egin daiteke, moneta sarreren batura eguneratua handiagoa delako moneta irteeren batura eguneratua baino.

5. Enpresa baten finantza egoerek bere egoera ekonomikoa eta finantzarioaren informazioa ematen dute. Horrela (adierazi egiazko aukera):
- Likidezia ratioa honela kalkulatzen da: Diruzaintza/Pasibo zirkulatzaila.
 - Maniobra funtsa positiboa bada, zera esan nahi du: ziklo laburrak nahikoa baliabide sortzen dituela ziklo laburreko ordainketa obligazioei aurre egiteko.
 - Diruzaintzako ratioak enpresa baten berehalako kaudimena adierazten du, eta zorrak likidatzeko unean arazoak saihesteko, ratio hori 1 eta 2 balioen tartean egon behar da.
 - Autonomia ratioak zera adierazten du: epe laburrean galdagarriak diren enpresako zorren proportzioa zein den, eta haren balio optimoa ezin da zehaztasunez adierazi.
6. Jose Urrutia tornulari gisa kontratatu dute Autometal SA enpresan. Hilabeteko 2000 €ko soldata adostu dute, eta, laneko lehenengo hilabetearen amaieran, Jose Urrutiaren kontuan 1.470 €ko ordainketa bat egin da. Baieztapen hauetako batek adostutako soldataren eta jasotako ordainketaren arteko diferentziaren arrazoiak aipatzen ditu. Zein da?
- Autometal SA enpresaren Finantza Sailak akats bat egin du Jose Urrutiaren nomina ordaintzean.
 - Diferentzia eman da, Jose Urrutiak ordaindu beharreko Balio Erantsiaren Zerga kendu zaiolako.
 - Diferentzia eman da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga eta Gizarte Segurantzaren kotizazioa kendu direlako.
 - Diferentzia eman da, Autometal SA enpresako zuzendaritzak isun bat jarri diolako langileari lan ordutegia ez betetzeagatik.
7. Autometal SA enpresak deskontu lerro bat du irekita, Kutxa Bankuan. Kutxa Bankuak %7,3ko urteko deskontua eta % 1eko komisioa kobratzen du. Martxoaren 1ean, Autometal SA enpresako Finantza zuzendariak martxoaren 31ko epemuga zuen letra bat eramanean du deskontatzeraz, eta 984 € jaso ditu eskudirutan. Zein da letraren nominala?
- 990 €
 - 1.000 €
 - 1.010 €
 - 1.020 €
8. Autometal SA enpresa hiru inbertsio proiektu ari da baloratzen. Balorazioa egiteko, Barne Errendimenduaren Tasaren inbertsioen aukeraketa metodoa erabili da; hots, BET metodoa. Honako errentagarritasun hauek kalkulatu dira:

	BET
A PROIEKTUA	% 10
A PROIEKTUA	% 7
C PROIEKTUA	% 8

Inbertsio proiektuei ekiteko finantzaketa lortzeko epe luzeko mailegu bat eskatuko zaio Kutxa Bankuari. Epe luzeko maileguaren benetako kostua % 8,5ekoa da. Hiru inbertsioetatik zein da onargarria?

- Hiru inbertsioek $BET > 0$ dute; hiru inbertsioak, beraz, onargarriak dira.
- A eta C inbertsioak onargarriak dira, eta B inbertsioa ez da onargarria.
- A inbertsioa onargarria da, eta A eta C inbertsioak, ez.
- Emandako datuekin ezin dugu esan zer inbertsio den onargarria.

9. Autometal SA enpresako Finantza zuzendariak epe luzeko mailegu bat kontratatu behar du. Hori dela eta, 4 bankutara joan da, eta datu hauek eskuratu ditu:

	Hasierako komisioa	Urteko interes tasa nominala	Urteko UTB
A MALEGUA	% 0,5	% 10	% 10,71
B MALEGUA	% 2	% 9,5	% 10,88
C MALEGUA	0	% 10,30	% 10,81
D MALEGUA	% 0,1	% 10,10	% 10,62

Zein mailegu aukeratu behar du Finantza Zuzendariak?

- B mailegua, urteko interes tasa nominal txikiena duelako.
- C mailegua, hasierako komisio txikiena duelako.
- D mailegua, urteko UTB txikiena duelako.
- Eskura dagoen informazioarekin, ezin da erabaki zein mailegu den egokiena.

10. Autometal enpresak auto elektrikoak ekoizten ditu 50.000 €ko prezioan. Enpresaren urteko ekoizpen gaitasun gorena 48 autokoa da. Enpresak 1.000.000 €ko kostu finkoak ditu, eta auto bakoitzeko kostu aldakorrak 30.000 €koak dira. Kalkulatu errentagarritasun atalasea, eta adierazi ea Autometal enpresak irabaziak izango dituen.

- Errentagarritasun atalasea 40 autokoa da, eta Autometal enpresak irabaziak izango ditu.
- Errentagarritasun atalasea 50 autokoa da, eta Autometal enpresak irabaziak izango ditu.
- Errentagarritasun atalasea 50 autokoa da, eta Autometal enpresak galerak izango ditu.
- Errentagarritasun atalasea 48 autokoa da, eta Autometal enpresak irabaziak izango ditu.

11. Ikuspegi keynestarrak zera defendatzen du:

- aurrekontu publikoa urtero orekatuta mantendu behar dela.
- zerga politika ez dela erabili behar.
- aurrekontu publikoa ziklikoki orekatu behar dela.
- ekonomia automatikoki doitu behar dela.

12. Merkatu irekiko eragiketak egiten dira:
- Soilik likidezia gabezia duten bankuen eta kutxen artean.
 - Soilik gehiegizko likidezia duten bankuen eta kutxen artean.
 - Banku zentralen artean.
 - Bankuarteko merkatuan.
13. Termino ekonomikoetan, kontsideratu daiteke ondasunen produkzioan epe luzera dauden kostu bakarrak hauek direla:
- Kostu osoak.
 - Kostu finkoak.
 - Kostu aldakorrak.
 - Batez besteko kostu osoak.
14. Esan ondare-elementu hauen artean zein den zirkulatzailerako inbertsio bat:
- Mahai bat erostea, presidentearen bulegorako.
 - Makina bat erostea.
 - Lehengaiak erostea.
 - Aurrekoetatik bakar bat ere ez.
15. Ibarrekolandia ekonomia ireki txiki bat da. Instagramer ospetsu bati esker, oso ezagun egin dira eguzkiko betaurreko jakin batzuk. Eguzkiko betaurreko horiek Ibarrekolandian bakarrik ekoizten dira. Instagramer horri esker oso ezagunak egin direnez, eguzki betaurreko horien salmentak gora egin du atzerrian. Zer esan dezakegu Ibarrekolandiako ekonomiari buruz?
- Haren monetaren eskaera gutxituko da.
 - Haren monetaren balioa igoko da.
 - Espainiako inportazioak igo egingo dira.
 - Erantzun guztiak zuzenak dira.

Bigarren atala: EKONOMIAKO ETA ENPRESEN ANTOLAKETAKO ARIKETA PRAKTIKOAK

1 ARIKETA

LOEGIN SA multinazionalak bere jarduera areagotu nahi du koltxoien merkatuan. Horretarako, merkatuan dagoen enpresaren batean inbertitzea erabaki du, eta ikusi du merkatuan antzeko produktu bat duten bi enpresa lehiatzen direla: ALTXATU, SA eta JEITSI, SA.

LOEGIN SAK, erabakia hartzeko, bakoitzaren ekonomia- eta finantza-errentagarritasuna aztertuko du. Eskura duen informazioa honako hau da:

	ALTXATU, SA	JEITSI, SA
Aktiboak	250.000 €	250.000 €
Honela finantzatuta:		
a) Baliabide propioak:	% 80= 200.000 €	% 20= 50.000 €
b) Epe luzeko zorpetzea	% 16= 40.000 €	% 40= 100.000 €
c) Epe laburreko zorpetzea	% 4= 10.000 € <i>(zorpetzeak %1eko interesa du)</i>	% 40= 100.000 € <i>(zorpetzeak %1eko interesa du)</i>
Ustiapeneko emaitza	5.000 €	5.000 €
Sozietateen gaineko zerga %28koa da.		

HONAKO HAU ESKATZEN DA:

- a) Azaldu errentagarritasun ekonomikoaren eta errentagarritasun finantzarioaren, eta justifikatu zergatik LOEGIN enpresak horretan oinarrituta hartuko duen erabakia.
- b) Kalkulatu enpresa bakoitzaren errentagarritasun ekonomikoa eta interpretatu lortutako zifrak.
- c) Kalkulatu enpresa bakoitzaren errentagarritasun finantzarioa eta interpretatu lortutako zifrak.
- d) Zer erabakiko du LOEGINek? Justifikatu erantzuna.

EUSKAL HERRIKO XII EKONOMIAKO OLINPIADA

2 ARIKETA

Hurrengo taulan enpresa bati buruzko informazioa ematen da:

E	Y	PMe	PMg	P	VPMe	VPMg	IT	IMg	IPMg	w
0	0			20						400
1	10			20						400
2	34			20						400
3	66			20						400
4	100			20						400
5	130			20						400
6	150			20						400
7	154			20						400

Taula horretan, E lan kantitatea da; Y produkzio osoa; PMe batez besteko produktua; PMg produktu marjinala; P enpresak sortutako ondasunaren salmenta prezioa; VPMe batez besteko produktuaren balioa ($P * PMe$); VPMg produktu marjinalaren balioa ($P * PMg$); IT sarrera osoa ($P * Y$, produzitzen duen guztia saltzen duela suposatzen da); IMg sarrera marjinala; IPMg produktu marjinalaren sarrera ($IMg * PMg$); eta W langile bakoitzari ordaintzen zaion soldata.

HONAKO HAU ESKATZEN DA:

- Osatu taula.
- Ondasunen eta lanaren merkatuak lehia perfektuan funtzionatzen du? Zergatik?
- Enpresa horrek zer lan kantitate kontratatu behar du bere irabaziak maximizatzeko?

EUSKAL HERRIKO XII EKONOMIAKO OLINPIADA

Hirugarren atala: TESTU BAT IRUZKINAK EGITEKO

EL PAIS egunkariko albistea, 2019/10/20

AEBko muga zergek kaltetutakoek, soberakinak eta prezioen beherakadak iragarri dituzte

Zergapeko produktuak egiten dituzten Espainiako ekoizleek merkatu kuotaren eta enpleguaren galeraz ohartarazi dute

Kaltetutako sektoreek iragarri dutenez, AEBk Espainiako elikagaiei, bereziki olioari, ardoari eta gaztari, ezarritako muga zergek izakinen igoera eta prezioen gorakada eragingo dute. Olioaren sektorea izango da kaltetuena; izan ere, urtero 120.000 tona inguru esportatzen ditu AEBra, erdia ontziratuta eta erdia ontziratuta gabe, 400 milioi euro inguruko balioan. [...]

Ardoari dagokionez, muga zergak ontziratutako produktuari eragiten dio; zehazki, bi litro arteko bolumenean ontziratzen denari eta 14 graduko gutxieneko graduazioa duenari. José Manuel Pérez Ovejas Hermanos Pérez Pascuas upeltegiaren esportazio zuzendariaren iritziz, prezioen igoera handi batek atzean utziko ditu Espainiako ardoak, hobe kokatuta dauden Frantziako edo Italiako ardoekiko. Espainiak urtean 0,7 milioi hektolitro eramaten ditu AEBra, litroa batez beste 4,14 eurotan salduta; hau da, gama erdi/altuko ardoak; orotara, 20 milioi hektolitrotik gora esportatzen dira. Muga zergak upeldegi nagusiei eragingo die, hegoaldeko hemisferioko lehiakideen aurrean. Eta jatorri izendapeneko ardoa ezin da saldu ontziratuta gabe.

Gaztari dagokionez, AEB Espainiako esportazioen jomuga nagusia da, 87 milioi euro baino gehiagorekin. Muga zergen igoerarekin, sektorea ezingo da lehiatu hirugarren herrialdeekin. Horrez gain, beste arrisku bat dago; izan ere, gazta zergapean duten beste produktore handi batzuek, hala nola Alemaniak, Frantziak, Holandak eta Danimarkak, beren soberakinak Espainiako merkatuan sar ditzakete saldo prezioetan, lehen ere gertatu izan baita, eta horrek eragina izan dezake produkzioan. [...]

Irakurri albistea eta erantzun galdera hauei:

- a) Zer da politika komertziala eta zer neurri daude haren barruan?
- b) Zer da muga zerga bat eta zergatik jarri du AEBk produktu horien gainean?
- c) Arrazoitu muga zerga horien ondorioei buruz.

EUSKAL HERRIKO XII EKONOMIAKO OLINPIADA

EUSKAL HERRIKO XII EKONOMIAKO OLINPIADA